

LABeko burkideok:

Agur eta ohore



DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

TXT 20192

JON

Naukaten toki hontatik gu guztiontzat hain garrantzitsua den zuen kongresuaren hasieran besarkadarik beroena igorri nahi dizuet.

Abertzale guztiak, langile guztiak, zuen eztabaida eta erabakiei begira dauzkatzue. LAB sindikatuaren finkapena suposatuko duen batzar nagusi honen aurrean adi gaituzue, zuen burutapenak esagutzeko desiatzen, zuen lana txalotzeko asmoz, azken finean LAB langileen aldeko klase sindikalismoaren bultzatzaile dugulako; Euskal Herria gure nazio zapalduaren langileen aldeko klase sindikatua dugulako eta aldi berean langile guztiakin elkartasunean borrokatzeko prest dagoen sindikatua dugulako.

LAB sindikalgintza ahul eta epelaren mugak apurtzeko sortu zen. Kapitalak beti kontrolpean dituen errebeindikazio ekonomiko hutsen aurkako sindikalgintza egiteko asmoarekin sortu zan LAB.

LABek euskal langileok sofritzen ditugun zapalkuntza guztiak borroka berean batzeko sortu zan. Herri zapalkuntza eta klase zapalkuntza. Eta ziur izan borroka latz hoietan erakutsitako gogo eta tinkotasunari esker, gero eta langile gehiago, gero eta abertzale gehiagoen konfidantza irabazi dozuela.

Gaur egun ELArekin euskal esparru sindikala osatzeko dabilkizuen bidea LABekook lortu duzuen heldutasuna erakusten digu. Espainiar sindikalgin-

heldutasuna erakusten digu. Espainiar sindikalgin-  
tzaren zentralismoaren aurka eta langileen burujabe-  
tasunean oinarrituko den Euskal Herriaren burujabe-  
tasunaren bidean aurrerapausu itzela eman duzue. Ez  
izan dudarik!

Ez naiz gehiago luzatuko, baina jakin ezazue  
zuen lanari esker LAB errealitate sendoa bihurtu dela  
eta gaur egun Euskal Herri sozialista eta indepen-  
dientean sinisten dugunontzat itxaropen, esperan-  
tzaren, erreferentzia bihurtu zaretela.

Beti aurrera etorkizuna gurea da eta!  
Gora Euskal Herria independentea  
Gora langileria  
Gora LAB.